

AUTODETERMINAZIOA

## Angel Oiarbide

Eskoziara iaz egindako bidaia aurtan errepikatuko dute, *Highlands Games World Championships* txapelketan parte hartzeko gonbidatu baitituzte: Idiazabalgo Autodeterminazio eskubidearen Aldeko Herri Ekimenekoak dira. Ehun lagundik gorako ikuskizunaren atzean erabakitze eskubidearen aldeko filosofia osoa dago. Angel Oiarbideren (Idiazabal, 1974) esanetan “autodeterminazioa eskubide garrantzitsuegia da politikoengan bakarrik uzteko”.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco



# «Idiazabalen ez gaude alderdi politikoei begira»

Zuen egitasmoaren hazia herri kirol taldea izan zen, baina gero talde gehiago bildu zenituzten Eskoziara joateko. Noiz eta zergatik erabaki zenuten bidaia bat baino gehiago izango zela?

Hasieratik gure asmoa herrien arteko ezagutza eta uztarketa egitea izan da. Aukeratako bat zen Eskoziara joan, gure izaera eta ohiturak erakutsi, ederki pasa eta etorri. Baina konturatu ginen benetako erakustaldia Euskal Herrian eman behar genuela eta erronka Idiazabalgo sentsibilitate ezberdinak biltzen dituen puntua potentziaztea zela: autodeterminazio eskubidea. Hori handitzen joan zen eta ikusi genuen posible zela Autodeterminazio eskubidearen Aldeko Herri Ekimena sortzea.

Eskozian ikusmin handia sortu zenuen, kontaktu asko egin eta bertako parlamentuan ere izan zineten. Zer konklusio atera liteke?

Politikari begira, ez dauka zerikusirik hemen bizi dugunarekin. Hemen autodeterminazio eskubidea politikoen zurrunbiloan dago sartuta, lokatzetan, eta konfliktoa sortzen du. Eskozian aldiz, autodeterminazio eskubidea eskubide bat da. Edinburg-hon Parlamentuko kontserbadore bati galdetu genion ea zer esango lukeen ez balieke Brownek utziko beraien etorkizuna erabakitzen: “Ez, hori ez genuke onartuko, guk gure etorkizuna erabakitzea ez dugu zalan-tzan jartzen. Horregatik ezezkoren alde lan egingo dugu”. Han beste

antzezleku edo dimentsio batean dabilta eta dimentsio hori hona ekarri nahi dugu.

Gobernu aldaketa jadanik emana zegoen eta erreferendumaren gaiak asko hitz egiten zen. Horrek eragin al zuen holako sinpatiarik zuengan, euskaldunengan? Hortik zuen erakustaldiak izandako arrakasta?

Ez zait iruditzen. Eskoziarrak ez daude euskaldunei begira. Karrera honetan haiek ihes eginda doaz eta ez dute atzera begiratzen. Erakustaldia- ren arrakasta beraientzat ezezaguna den herri baten ohitura eta kultura atariraino eramatean egon daiteke. Gu musutruk joan ginen eta ahal genuen guztia eman genuen.



**“Zu Idiazabaldik Txindokira bazoaz eta ni Abaltzisketara, gaurko egoera politikoan ezin ditugu bi pauso elkarrekin egin eta horrek ez du logikarik”.**

**Zein laguntza izan zenuten hango jendearen aldetik?**

Eskoizian katalan baten laguntza izan genuen, SNPko ministroen asesorea. Ikaragarri gustatu zitzaion gure proiektua, baina esaten zigun Eskoizian pauso guztiak alderdi politikoek ematen dituztela. Han dena politiko-en bitartez egiten da eta hori guztiz kontraesankorra da guretzat, ze hemen normalean aurretik herri mugimenduak daude eta gero datoz politikariak. Katalan horrek esan zigun Euskal Herritik joandako guztia luparekin begiratzen dela eta alderdi politikoek babesa behar genuela, baina ez auzi judizialean sartuta daudenena. Gure erantzuna izan zen: “Ez dugu alderdi politikoek baldintzatzerik nahi”. Segituan ulertu zuen.

**Eskatzen zizueten ekimena Eskoziako erara eramatea. Baina hemen horrek ez du balio...**

Hori da. Hala ere, Euskal Herrian zaila da termino hauetan ekimen bat sortzea alderdi politikoek parametroetatik kanpo. Asko izan dira, baina beti egin izan dute herren.

Guk nahi genuen herrenik egingo ez duen ekimen bat, oinarri bakartzat autodeterminazioa duena. Hasieran erreze-loak sortu genituen alde batetik eta bestetik, baina gure hausnarketa izan zen ondo ari ginela, sentsibilitate ezberdinen arteko topagune bat sortu nahi baikenuen. Orain, pausoak eman ahala, erreze-loak urrun-tzen hasiak dira.

**Autodeterminazioa sentsibilitate ezberdinen arteko topagune bezala duzue orduan.**

Adostasunetik hasten gara, ez banatzen gaituenetik. Zu Idiazabaldik Txindokira bazoaz eta ni Abaltzisketara, gaurko egoera politikoan ezin ditugu bi pauso ere egin elkarrekin eta horrek ez du logikarik. Herri ekimen bezala demostratu nahi dugu kapaz garela azken bidegurutzeraino, Larraitze-raino, elkarrekin joateko.

**“Maltzagaraino elkarrekin”.**

Bai, baina herritarrek praktikan jarrita eta ez alderdi politikoek. Gainera, Eskoizian izan ginenez gero, garbiago dugu topagune hori aldarrikatzea ez dela politika egitea.

**Lehenago esan duzu erreze-loak sortu zenituztela. Udalaren kasuan zein babes izan duzue?**

Hasieran nahi genuen Udalak babesturik joan Eskoziara, baina azkenean konturatu ginen ezin genuela ekimena haren bizkarrean jarri. Udalak orain baietz esan eta 300 lagun joango bagina *Braveheart* moduan emozio-naturik, hurrena politikoek artean

desadostasunen bat egonez gero goitik behera eroriko litzateke dena. Ekimena herrian gorpuztu genuen eta Udala atzetik etorri da.

**Nola estrapolatu daiteke ideia hori Euskal Herri osora?**

Paralelismoa egiten dugu bake prozesuarekin. Goiko profesionalak, bai kaputxadunak eta kaputxadun ez direnak, ados jartzen dira eta herrian kristoren ilusioa sortzen da, denak bizkarretik helduta erabat emozionaturik. Gero, “goikoen” artean desadostasuna hasten denean, bake prozesua puskatu eta herritarrak ardi galduak bezala ibiltzen gara. Noski, segidako pentsamendua da gizarteak aktibatu behar duela prozesua, baina instituzio eta alderdietatik hori ez bada auspotzen... Ba hori egin dugu Idiazabalen, joko-zelaiko oinarriak jarri ditugu, ez gaude alderdi politikoei begira.

**Aurten Highlands Games World Championships-era gonbidatu zaituztete. Eskaparete egokia ematen du...**

Eskoziako ekitaldi kultural handiena da, 20.000 lagun biltzen ditu eta eskaldunok ekitaldi horretako protagonistak izateko bidean gara. Txapelketari ahalik eta zuku gehien atera nahi diogu. Adibidez, hemengo dantzariak hasi dira Eskoziako dantzak ikasten.

**Baina herri kirolak, dantzariak, joaldunak... Ez al duzue oso irudi topikoa zabalduko Eskoizian?**

Gu dakigunetik ari gara autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen. Orain herri kirol edo dantza erakustaldia da, baina hurrengoan izan liteke beste herri bateko surf txapelketa. Ez goaz folklore hutsez, gure jarduna osatzen dugu erabakitzeo eskubidearen leloarekin.

**Eskoizian hasi zenuten ibilbidea, baina non bukatuko da? Ba al duzue asmorik proposamen zehatzak egiteko?**

Gure asmoa ez da zehaztasunetan sartzea, oinarria jartzea baizik. Ze, herritarren eskuetan badago politikariak eragiteko aukera. Horregatik, Idiazabalen sortutako txispa hau beste herrietan ere sortu eta ilusiozko sute bat piztu nahi genuke. Hor-

## Basque Tartan

"Herrien arteko uztarketa detaille guztietara iristea nahi dugu eta horietako bat da *tartan* ize-neko oihala. Eskoziako gizartea klanetan egon da bananduta eta klan bakoitzak *tartan* bat izan du: *Mc. Gregor Tartan*, *Walles Tartan*... horiek erregistraturik ditu ofizialki Eskoziako Gobernuak. Diasporak ere baditu bere *tartanak*, baina Eskoziarekin inongo erlaziorik ez duen oihalik ez dago.

Gure proposamena izan da euskal tartan bat sortzea, eta hainbeste gustatu zaie, *Highlands Games World Championship*seko tartan ofiziala *Inverness Basque Tartan* izango dela. Hau da, Euskal Herriko izena eta izana eraman dugu Eskoziako muinetara. Hango komunikabideak hasiak dira gure berri ematen".



Basque Tartan-ari eman dioten itxura. Irudiaren erdian Gerry Reynolds ageri da, Highlandsetako kultura teknikaria; idiazabaldarren proiektuan buru-belarri ari da.

tik aurrera hasiko da politikoen lana. Honek hasiera eta bukaera bat dauka: 2008an Eskozian izan ginen eta udaberri honetan Kataluniar joan gara. Katalunian mugimendu handi bat ari da sortzen autodeterminazio eskubidearen alde. Badago ikono bat alderdi guztiek errespetatzen dutena, Enric Canela katedraduna, bada, berarekin ere hitz egin genuen, eta Decidim plataformakoe-ekin ere bai, besteak beste. Orain aukera sortu zaigu Eskoziako Highlandsetako txapelketara joateko eta 2010ean ixten da zirkulua, katalanak eta eskoziarrak Euskal Herrira ekarriz.

### Datak asko esan nahi du.

2010ean mundu guztia Eskoziara begira egongo da eta guk gai izan nahi dugu eskoziarrak Euskal Herrira ekartzeko. Eskoziako Gobernuak datorren urtean sekulako erronka du erreferendumarekin eta hortara "birjin" iritsi nahi du, kutsatu gabe. Demonstratu nahi du Estatuekin erlazioa daitekeela, ez du inongo erregio edo komunitarekin harremanetan jarri nahi. Horregatik du holako garrantzia eskoziarrak Euskal Herrira ekartzea. Han izan gine-

nean esaten ziguten: "Zuek atzeko atetik sukalderaino sartu zarete".

### Momentua aprobeztatu nahi duzue beraz.

Groenlandian inuitak hasi dira, baina hango inertziak ez digu eragiten; Kosovokoa ere pasa da... Aldiz, datorren urtean Europan tsunami politiko bat gertatuko da: gu bezalako nazio batek praktikara eramango du bere etorkizuna erabakitze-ko eskubidea, eta lo baldin bagaude, tsunamia pasa eta ez gaitu mugituko. Aldiz, sentsibilizaturik bagaude, olatua hartu eta leku hobeago batera eramango gaitu. Hurrengo urtean eskoziarren sartuko den indar hori aprobeztatu beharrea gaude, aspalditxotik geldirik dugun etxeko errota martxan jartzeko. ■

[www.argia.com/multimedia](http://www.argia.com/multimedia) helbidean, elkarrizketaren diaporama.

**INGURU ABENTURA**

- Arroila Jaitsierak
- Espeleologia
- Zubi saltoa
- Eskalada
- Via Ferratak
- Mendi ibilaldiak
- Elur erraketak
- Orientazioa
- Mendiko bizikleta
- Multiabentura
- Ikastaro teknikoak
- Abentura bidaiak eta askoz gehiago...

[www.inguruabentura.com](http://www.inguruabentura.com)  
[info@inguruabentura.com](mailto:info@inguruabentura.com)

- Descenso de Cañones
- Espeleología
- Puenting
- Escalada
- Vías Ferratas
- Banderismo
- Raquetas de nieve
- Orientación
- Mountain bike
- Multiaventura
- Cursos técnicos
- Viajes de aventura y mucho mas...

Tel: 635 748 048  
 San Juan 18  
 Albeniz - Asparrena  
 Araba